



GURE  
ETORKIZUNA  
ERABAKITZEARI

**BAI**

SÍ AL DERECHO A DECIDIR

**LAB**

GURE  
GARAIA

Azken urteetan Euskal Herrian gertatu dena azaltzeko lanaren eta bizitzaren prekarizazioaz eta pobreziaz hitz egin behar dugu. Erreforma eta murrizketen bidetik lan harremanak erasotu dizkigute; soldata geroz eta muritzagoak ezarri; emakumeon zaintza lanak aitortu gabe jarraitzen du eta lan munduan bigarren mailako lanak egitera behartuak gaude; sektore publikoa eraitsi eta eskubide sozialak birrindu dizkigute, pentsioak arriskuan jarri eta bizitza duinerako eskubidea etengabe urratu. Zapalkuntza hirukoitza bizi dugu: patriarkala, soziala eta nazionala. Langileoi erabakitzeko eskubidea ukatu digute eta Kapitalaren interesak gailendu dira, Herri interesen gainetik.

Bertako errealitate eta beharren araberako erabaki politiko, ekonomiko eta sozialak ez hartzeak herri bezala ahuldu egin gaitu. Estatuek ez dute Euskal Herriaren nazio izaera aitortzen eta horrela ez dago benetako alternatiba sozial, politiko eta ekonomiko bat eraikitzetik. Nola ziurtatu bizi proiektu duin eta askea edukitzeko eskubidea, geuri dagozkigun gaietan erabakiak hartzeko aukerarik ez badugu? Erabaki dezagun, izan gaitezen gure etorkizunaren jabe, herri aske eta burujabe!

Es obligado hablar de precarización y pobreza laboral y vital para explicar lo ocurrido en los últimos años en Euskal Herria. Las reformas y los recortes han agredido las relaciones laborales; se han impuesto salarios cada vez más insuficientes; continúa sin reconocerse la labor de cuidado de las mujeres, al tiempo que seguimos obligadas a realizar trabajos de segunda; se ha destruido el sector público y nos han despojado de derechos sociales, poniendo en peligro las pensiones y vulnerando continuamente el derecho a una vida digna. Vivimos una triple opresión: patriarcal, social y nacional. Se nos niega el derecho a decidir a las y los trabajadores y se anteponen los intereses del Capital por encima de los intereses de las y los ciudadanos.

La imposibilidad de tomar decisiones políticas, económicas y sociales, en función de nuestra realidad y necesidades, nos ha debilitado como pueblo. Los estados no reconocen a Euskal Herria como nación y, por lo tanto, no hay forma de construir una alternativa social, política y económica real. ¿Cómo garantizar el derecho a un proyecto de vida digno y en libertad si no tenemos capacidad de decisión en los asuntos que nos conciernen? Decidamos, seamos dueñas y dueños de nuestro futuro, luchemos por un país libre y soberano!

# GURE ETORKIZUNA ERABAKITZEARI BAI EUSKAL ESTATU BURUJABEARI BAI

Erabakitzeko eskubidea behar dugu, egoera laboral eta soziala iraultzeko. Erabakitzeko eskubidea, erreforma eta murrizketa guztiei aurre egin eta alternatibak eraikitzeko Erabakitzeko eskubidea, Euskal Herria prozesu eratzaile eta eraldatzaile batean murgiltzeko.

Oinarri berriak dituen jendarte eredu askea nahi dugu eta posible da. Langileok aukera paregabea dugu geure hitza eta erabakia aktibatzeko eta gure borondatea adierazteko antolatu diren herri galdeketetan. Estatua da tresna Euskal Herria politikoki egituratzeko eta sozialki kohesionatzeko. Bizitza duina bermatzeko behar ditugun baliabide politiko, ekonomiko eta sozialak eskuratzeko. Langileriaren bizi eta lan baldintzen hobetzeko. Langileok erabaki. Langileok BAI, Euskal Estatu burujabeari!



## LAN MUNDUTIK ZERTARAKO ERABAKI?

Euskal demokrazia eraikitzeko. Gure etorkizunaren jabe izateko. Gure eskubideak arautzeko eta betetzeko markoa izan dezagun. Euskal Herria nazioa da, dagokigu erabakitzeko eskubidea eskuratzeko garai da. Gure historian, kulturan eta hizkuntzan oinarritutako herri anitza sortzeko, beste kulturen integratziale, munduari zabalik.



Egungo sistema errotik aldatzeko. Neoliberalismoari aurre eginez, jendarte, produkzio eta kontsumo eredu berri bat eraikitzeko. Jendarte eredu eta herri askea posible egiteko.



Egoera ekonomiko eta soziala iraultzeko. Bizitza erdian kokatuz, eredu sozioekonomiko propio bat eraikitzeko. Botere ekonomikoaren gainetik herri boterea jartzeko.



Langileon izenean beste inork erabaki ez dezan. Gure lan eta bizi baldintzetan eragiten diguten gaietan langileok izateko protagonistak.



Zapalkuntza oro gainditzeko. Genero bereizketa eta zapalkuntza, klase zapalkuntza eta nazio zapalkuntzarekin amaitzeko.



Lan harremanetan eragiteko. Lan mundua aldatzeko. Langileon erabaki ahalmena handitzeko. Erabakia langileengandik zenbat eta gertuago, orduan eta hobe. Laneko gaietan ahalmen legegile osoa behar dugu.



Gure lan hitzarmenen defentsan. Gure hitzarmenak hemen erabakitzeko eta hitzarmen propio horiek estatukoetatik babesteko. Hitzarmen duinak bermatzeko, gure hitzarmenak hemen erabakitzeko.



## LAN MUNDUTIK ZER ERABAKI?

Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua. Lan munduan prekaritetatearen amaiera. Soldata eta lan baldintza duinak, aberastasunaren banaketa. 1.200 euroko gutxieneko soldata eta 35 orduko lan astearen defentsa. Lan osasuna bermatzea. Euskaraz lan egiteko eskubidea.



Negoziazio kolektiborako marko propioa. Gure hitzarmenen defentsan, lan baldintza duinen alde. Enplegu duina bermatuz, gure hitzarmenak, lanaren eta aberastasunaren banaketarako tresna izan daitezen.



Babes sozialerako euskal sistema publikoa. Pobreziaren aurka, pertsonak lehenesteko, denontzat bizitza duina bermatzeko; Euskal Herri oparoago, zuzenago, solidariago eta berdinazaleago baten alde. Gizarte-sistema propioa, integrala, euskalduna erabaki, kalitateko enplegua sortuko duen politika erreal eta eraginkorrekintzat, jubilatzen diren pertsona guztientzat 1.080 euroko pentsioa bermatuz.



Aberastasunaren banaketa justu eta progresiboa. Zerga sistema justu eta birbanatzairen batek lagunduta.



Sektore publiko indartsu bat. Gehiengo sozialaren mesedetan izango diren politika publikoak sustatz, enpleguaren defentsan, pribatizazio eta merkantilizazio prozesuekin amaitzeko.



Industria politika eraginkorrek. Multinazionalen interesen gainetik Euskal Herriak industria politika propioa izan dezan, sektore estrategikoek aldeko apustua eginez.

# SÍ A DECIDIR NUESTRO FUTURO SÍ AL ESTADO VASCO SOBERANO

El derecho a decidir es imprescindible para revertir la situación laboral y social; derecho a decidir para hacer frente a todas las reformas y recortes y construir alternativas; derecho a decidir para conducir a Euskal Herria a un proceso constituyente y transformador.

Queremos un modelo de sociedad libre, con nuevos cimientos, y creemos que es posible. Las y los trabajadores tenemos una oportunidad inmejorable para activar nuestro poder de decisión, nuestra palabra, y expresar nuestra voluntad en las consultas populares que se celebrarán en Euskal Herria. El Estado es el instrumento que necesita Euskal Herria para configurarse políticamente y cohesionarse socialmente, el instrumento que permita dotarnos de las herramientas políticas, económicas y sociales necesarias que garanticen una vida digna y que mejoren las condiciones de vida y de trabajo. Las y los trabajadores debemos decidir. Las y los trabajadores decimos Sí al Estado vasco soberano!



## ¿POR QUÉ DECIDIR DESDE EL ÁMBITO LABORAL?

Para construir la democracia vasca. Para ser dueñas y dueños de nuestro futuro. En caso de constituir Euskal Herria, tendríamos el marco para regular y garantizar nuestros derechos. Euskal Herria es una nación, por lo que es hora de conquistar el derecho a decidir que nos asiste y construir un pueblo plural en base a nuestra historia, cultura y lengua, un pueblo integrador respecto a otras culturas, abierto al mundo.



Para cambiar el actual sistema de raíz. Para construir un nuevo modelo de sociedad, producción y consumo, haciendo frente al Neoliberalismo. Para hacer posible un modelo de sociedad y de país en libertad.



Para revertir la situación económica y social. Para construir un modelo socioeconómico propio, poniendo la vida en el centro. Para desarrollar el poder popular, por encima del poder económico.



Para que nadie decida en nombre de las y los trabajadores. Para que las y los trabajadores seamos protagonistas en los asuntos que conciernen a nuestras condiciones de vida y de trabajo.



Para superar todas las imposiciones. Para acabar con la discriminación y opresión de género, para acabar con la opresión de clase y de país.



Para incidir en las relaciones laborales. Para cambiar el mundo laboral. Para ampliar la capacidad de decisión de las y los trabajadores. Cuanto más cerca estemos de la toma de decisiones, mejor para las y los trabajadores. Necesitamos poder legislativo absoluto en el ámbito laboral.



En defensa de nuestros convenios laborales. Para acordar convenios propios y para blindarlos de los estatales. Para garantizar convenios dignos, para decidir aquí nuestros convenios.



## ¿QUÉ DECIDIR DESDE EL ÁMBITO LABORAL?

Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social. Poner fin a la precariedad en el ámbito laboral. Salario y condiciones de trabajo dignas, reparto de la riqueza. 1.200 euros de salario mínimo y defensa de la semana laboral de 35 horas. Garantizar la salud laboral. Derecho a trabajar en euskara.



Marco propio para la negociación colectiva. En defensa de nuestros convenios, por unas condiciones laborales dignas. Nuestros convenios han de servir de herramienta para repartir el trabajo y la riqueza, garantizando el empleo digno.



Sistema público vasco de protección social. Para garantizar una vida digna para todas y todos, con las personas como prioridad, haciendo frente a la precariedad; en favor de una Euskal Herria más productiva, justa, solidaria y con la igualdad como seña de identidad. Sistema social propio, integral y euskaldun, con políticas reales y eficaces que impulsen la creación de empleo de calidad, garantizando 1.080 euros de pensión para todas las personas que se jubilen.



Reparto justo y progresivo de la riqueza. Con la ayuda de un sistema fiscal justo y redistributivo.



Sector público sólido. Impulsando políticas públicas en favor de la mayoría social, en defensa del empleo, erradicando los procesos de privatización y mercantilización.



Políticas industriales eficaces. Para que Euskal Herria tenga su propia política industrial, por encima de los intereses de las multinacionales, apostando por los sectores estratégicos.

GURE  
ETORKIZUNA  
ERABAKITZEARI

**BAI**

SÍ AL DERECHO A DECIDIR



GURE  
GARAIA

[www.lab.eus](http://www.lab.eus)